

**ZUZENBIDE FERROVIARIA TRENBIDE PUBLIKOAREN UDALAREN HITZARMENA, TRAZATUAK INTEGRAZIOA** **PRIBATUKO VASCA SAREA ETA ARTEKO LANKIDETZA TRENBIDEAREN EIBARREN HOBETZEKO (EIBARKO ESTAZIOA-AZITAIN TARTEA)**

**CONVENIO DE COLABORACION ENTRE EL ENTE PUBLICO DE DERECHO PRIVADO "RED FERROVIARIA VASCA - EUSKAL TRENBIDA SAREA" Y EL AYUNTAMIENTO DE EIBAR, PARA LA MEJORA DE LA INTEGRACION URBANA DEL TRAZADO FERROVIARIO DE EIBAR (TRAMO ESTACION DE EIBAR-AZITAIN).**

Gasteizen,

En Vitoria, a :

#### **BILDUTA:**

Alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari atxikitako Red Ferroviaria Vasca – Euskal Trenbide Sarea erakunde publikoko lehendakari Iñaki Arriola López jauna:

Bestetik, Jon Iraola Iriondo jauna, Eibarko Udaleko alkatea.

#### **PARTE HARTZEN DUTE:**

Iñaki Arriola López jauna, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari atxikitako Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea erakunde publikoko lehendakaria, erakundearen ordezkari gisa, Administrazio Kontseiluak horretarako baimena emanda, 2021eko irailaren 27an egindako bilkuran.

Jon Iraola Iriondo jauna, Eibarko Udaleko alkatea, udalaren ordezkari gisa, Osoko bilkuraren 2021eko urriaren 25eko erabakiaren arabera jardunez.

Parte-hartzaileek, administrazioen arteko harreman guztien oinarri izan behar duten koordinazio-, lankidetz- eta errespetu-printzipioen esparruan, LANKIDETZA HITZARMEN hau sinatzeko lege-gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta horretarako, honako hau:

#### **ADIERAZTEN DUTE:**

- I. Erakunde erkideen eta lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 6. artikuluari

#### **REUNIDOS:**

De una parte, D. Iñaki Arriola López, Presidente del ente público "Red Ferroviaria Vasca – Euskal Trenbide Sarea", adscrito al Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

De la otra, D. Jon Iraola Iriondo, Alcalde del Ayuntamiento de Eibar.

#### **INTERVIENEN:**

D. Iñaki Arriola López, Presidente del Ente Público "Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea", adscrito al Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en representación del mismo, habiendo sido autorizado a tal efecto por el Consejo de Administración, en su sesión de 27 de septiembre de 2021.

D. Jon Iraola Iriondo, Alcalde del Ayuntamiento de Eibar, en representación del mismo, actuando en virtud del Acuerdo del Pleno, de fecha 25 de octubre de 2021.

Los Intervinientes, dentro del marco de los principios de coordinación, colaboración y respeto mutuos que deben informar todas las relaciones interadministrativas, se reconocen mutuamente capacidad legal para suscribir el presente CONVENIO DE COLABORACION, y a tal efecto:

#### **EXPONEN:**

- I. Que, de conformidad con lo dispuesto en el art. 10.32 del Estatuto de Autonomía para Euskadi, en relación al

dagokionez Euskadiko Autonomia Estatutuaren 10.32 artikuluan xedatutakoarekin bat, Euskadiko Autonomia Erkidegoko erakundeei dagokie Autonomia Erkidegoko lurraldean ibilbide osoa duten trenbideen arloko eskumena, eta hori da, hain zuzen, Bilbo- Donostia linearen kasua.

art. 6 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de relaciones entre las Instituciones Comunes y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, corresponde a las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma de Euskadi la competencia en materia de ferrocarriles cuyo itinerario se desarrolla íntegramente en el territorio de la Comunidad autónoma, caso de la línea Bilbao-Donostia.

II. 2004ko maiatzaren 21eko datarekin, Eusko Legebiltzarrak Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarearen 6/2004 Legea onetsi zuen, Europako zuzentarauen esparruan, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren eskumeneko trenbide sistemaren kudeaketa trenbide eredu berrira egokitu ahal izateko. Lege hori onetsiz Red Ferroviaria Vasca – Euskal Trenbide Sarea Erakunde Publikoa eratzen da, aurretik zeuden eta agintzen zaizkion trenbide azpiegiturak eraiki, kontserbatu, kudeatu eta administratzeko. Xede hori bete ahal izateko, ekainaren 118/2006 dekretuaren bitartez, "Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea" erakundeari lehendik zeuden trenbide-azpiegiturak esleitu eta atxiki zitzaizkion, haien artean, Bilbo-Donostia linea.

II. Que, con fecha 21 de mayo de 2004, el Parlamento Vasco aprobó la Ley 6/2004, de Red Ferroviaria Vasca – Euskal Trenbide Sarea, en el marco de las directivas europeas, con el fin de adaptar la gestión del sistema ferroviario competencia de la Comunidad Autónoma del País Vasco al nuevo modelo ferroviario. Con la aprobación de la citada Ley, se constituye el Ente Público Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea para la construcción, conservación, gestión y administración de las infraestructuras ferroviarias preexistentes y aquellas otras que así le sean encomendadas. Para el cumplimiento de su objeto, mediante Decreto 118/2006 se adscribe y encomienda a "Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea" la administración de las infraestructuras ferroviarias preexistentes, entre las que se incluye la línea Bilbao-Donostia.

III. Otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuz onetsitako Euskadiko Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Jarraibideen arabera, tren-geltokietako inguruek tratamendu berezia jaso behar dute dagokion udal planeamenduaren aldetik, trenbideak etorkizunean izango duen garapenaren protagonismoa kontuan izanik, eta tratamendu berezi horrek trenbide-sistema hiri eta hiriguneetan behar bezala integratzea ekarri behar du.

III. Que las anteriores Directrices de Ordenación Territorial, aprobadas por Decreto 28/1997, de 11 de Febrero, establecían que el entorno de las estaciones de ferrocarril debe ser objeto de un tratamiento singular por parte del planeamiento municipal correspondiente; atendiendo al protagonismo que se confiere al desarrollo futuro del ferrocarril, y que se debe traducir en una adecuada integración urbana del sistema ferroviario en las correspondientes ciudades y núcleos de población.

Gaur egungo Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek, uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren bidez onartuak, ezarritako ildoari jarraitzen diote, eta lurralde-plangintzan kontuan hartu behar diren gai eta diziplina-ikuspegi berriei

Las actuales Directrices de Ordenación Territorial, aprobadas por Decreto 128/2019, de 30 de Julio, ahondan en la senda marcada y atienden igualmente a las nuevas cuestiones y enfoques disciplinares que se deben contemplar en la planificación territorial, tales como

erantzuten diete, hala nola klima-aldaketaren erronkari, hiri-berroneratzeari, azpiegitura berdeari, paisaiari, ekonomia zirkularrari edo mugikortasunari.

el reto del cambio climático, la regeneración urbana, la infraestructura verde, el paisaje, la economía circular o la movilidad.

IV. Otsailaren 27ko 41/2001 Dekretu bidez onetsitako Euskadiko Autonomia Erkidegoko Trenbide Sarearen Arloko Lurralde Planak trenbidea bikoizteko eta trazatua hobetzeko zenbait jarduketa aurreikusten ditu Ermua-Eibar zatian.

IV. Que el Plan Territorial Sectorial de la Red Ferroviaria en la Comunidad Autónoma de Euskadi, aprobado por Decreto 41/2001, de 27 de febrero, prevé diversas actuaciones de desdoblamiento de vía y mejora del trazado en el tramo Ermua-Eibar.

V. Bestalde, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak udalen berezko eskumenak ezartzen ditu, eta horien artean sartzen da hirigintzaren antolamendua, kudeaketa, egikaritzea eta diziplina, parke eta lorategiak sustatu eta kudeatzea, hiriko bide publikoak zolatzea, toki publikoetako segurtasuna eta abar, indarrean dagoen Estatuko legeriak eta Erkidegoak ezartzen dutenaren arabera.

V. Que, por su parte, la Ley 7/1985, de 2 de Abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, establece las competencias propias de los Ayuntamientos, entre los que se sitúa la competencia de ordenación, gestión, ejecución y disciplina urbanística, promoción y gestión de parques y jardines, pavimentación de vías públicas urbanas, además de la referida a la seguridad en lugares públicos, etc. en los términos que fija la vigente legislación estatal y autonómica.

VI. 2010eko urtarrilaren 21ean, bi alderdiek, deskribatutako helburuak gauzatzek zeregin partekatuan beharrezko lankidetzak eta laguntza emateko premiaz jabetuta, Lankidetzak Hitzarmen bat sinatu zuten trenbide-sistema hiri-ingurunean hobeto integratzeko hainbat jarduketa egiteko helburuarekin, iragazkortasuna eta irisgarritasuna hobetuz, bai eta trenbidearen eta hiri-espazioen arteko bateragarritasuna ere; zehazki, honako tarte hauek estaltzeko jarduketak identifikatu dira:

VI. Que, con fecha 21 de Enero de 2010, ambas partes, conscientes de la necesidad de prestarse la cooperación y asistencia necesarias en la tarea común de hacer realidad los objetivos descritos, suscribieron un Convenio de Colaboración con el objeto de realizar diversas actuaciones para una mejor integración del sistema ferroviario en el entorno urbano, mejorando la permeabilidad y la accesibilidad, así como la compatibilidad del ferrocarril con los espacios urbano y, concretamente, identificándose las actuaciones de cobertura de los tramos siguientes:

- Ardantzako geltoki berriaren tarteak.
- Amaña-Ardantza tarteak.
- Eibarko estazioa-Azitain tarteak

- Tramo nueva estación de Ardantza.
- Tramo Amaña-Ardantza.
- Tramo estación de Eibar-Azitain.

VII. 2012ko apirilaren 2an, Ardantzako geltoki berriaren obrak egin ondoren, bi alderdiek 1. eranskina sinatu zuten, aipatutako hitzarmenaren klausulak betez, hura finantzatzeko

VII. Que, con fecha 2 de abril de 2012 y tras la realización de las obras del Tramo nueva estación de Ardantza, ambas partes suscribieron la Addenda nº 1, en ejecución del clausulado del

eta ordaintzeko hitzartutako konpromisoak gauzatzeko.

Convenio antedicho, a fin de materializar los compromisos convenidos para su financiación y pago.

VIII. 2012ko urriaren 8an, Amaña-Ardantza tarteko obrak egin aurretik, bi alderdiek 2. eranskina sinatu zuten, aipatutako hitzarmenaren klausulak betez, hura finantzatzeko eta ordaintzeko hitzartutako konpromisoak gauzatzeko.

VIII. Que, con fecha 8 de octubre de 2012 y previo a la realización de las obras del Tramo Amaña-Ardantza, ambas partes suscribieron la Addenda nº 2, en ejecución del clausulado del Convenio antedicho, a fin de materializar los compromisos convenidos para su financiación y pago.

IX. "Eibarko estazioa-Azитай" zatiari dagokionez, bi alderdiek hitzartutako jarduerak eta konpromisoak gauzatzeko egonik, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea indargabetu da, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea sartu da indarrean. Ildo horretatik, zortzigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren ondorioz (edozein administrazio publikok sinatutako indarreko hitzarmenak egokitzeari buruzkoa), agortu egin da jatorrizko hitzarmenaren gehieneko indarraldia.

IX. Que, encontrándose pendientes de ejecución las actuaciones y compromisos convenidos por ambas partes con relación al Tramo estación de Eibar-Azитай, ha sobrevenido la derogación de la Ley 30/1992, de 26 de Noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y la entrada en vigor de Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público y, en este sentido, con motivo de lo dispuesto en su Disposición Adicional Octava, relativa a la adaptación de los convenios vigentes suscritos por cualquier Administración Pública, se ha agotado el plazo máximo de vigencia del convenio originario.

Azaldutako guztiagatik, "Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea" Erakunde Publikoak eta Eibarko Udalak aipatutako LANKIDETZA-HITZARMENA sinatzea erabaki dute, klausula hauen arabera

Por todo lo expuesto, el Ente Público "Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea" y el Ayuntamiento de Eibar acuerdan por la presente la suscripción del Convenio de Colaboración ya mencionado, con arreglo a las siguientes

#### **KLAUSULAK:**

#### **CLAUSULAS:**

##### **LEHENENGOA.- Hitzarmenaren xedea.**

Hitzarmen honek xede du trenbide-sistema hiri ingurunean hobeto integratzea bilatzen duten zenbait jarduketa egitea, iragazkortasuna eta trenbidearen eta hiri espazioen arteko bateragarritasuna hobetuz.

Horrez gain xede du, baita ere, Euskal Trenbide Sarea Erakunde publikoak eta Eibarko Udalak, aurretik deskribatutako helburua betetzeko beharrezkoak diren

##### **PRIMERA.- Objeto del Convenio.**

El presente convenio tiene por objeto la realización de diversas actuaciones que persiguen una mejor integración del sistema ferroviario en el entorno urbano, mejorando la permeabilidad, así como la compatibilidad del ferrocarril con los espacios urbanos.

Asimismo tiene por objeto regular las condiciones que "Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea" y el Ayuntamiento de Eibar acuerdan para impulsar, financiar y ejecutar las

jarduketak bultzatu, finantziatu eta burutzeko baldintzak arautzea.

### **BIGARRENA.- Hitzarmenaren xede izan daitezkeen jarduerak.**

Euskal Trenbide Sarea erakunde publikoak eta Eibarko Udalak konpromisoa hartzen dute Lehen Klausulan aipatzen diren helburuak bultzatzeko adostasunez erabakitzen dituzten jarduketeki ekiteko.

Hitzarmen honetan oinarrituz buruko diren jarduketaren kostua, 16.460.886,18 eurotan zenbatetsia (zergak sartu gabe), Euskal Trenbide Sareak eta Eibarko Udalak finantzatuko dute era honetan:

a).- 15.727.088 €-ko zenbatekoa (zergak sartu gabe) Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareak finantzatuko du oso-osorik, MRR funtsen kontura (Biziberritze eta Erresilientziarako Mekanismoa), Europar Batasunak, Europako Kontseiluak 2020ko uztailaren 21ean hartutako erabakiaren bidez, abian jarritako ezohiko planaren "Next Generation EU" esparruan, Estatu Kideen susperraldi ekonomiko jasangarri, uniforme, inklusibo eta bidezko bat bultzatzeko, koronabirusaren pandemiaren ondoren.

b).- 733.798,18 €-ko zenbatekoa (zergak sartu gabe) ehuneko berrogeita hamarrean (%50) finantzatuko dute Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareak eta Eibarko Udalak.

Horretarako, honako urteroko hauek aurreikusi dira:

- 2022.- 6.000.000,00 €, Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari oso-osorik egoztekoak.
- 2023.- 6.950.000,00 €, Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari oso-osorik egoztekoak.
- 2024.- 3.510.886,18 €; horietatik 3.143.987,09 € Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari dagozkio eta 366.899,09 € Eibarko Udalari.

intervenciones necesarias para cumplir con el objetivo descrito anteriormente.

### **SEGUNDA.- Actividades que pueden ser objeto del Convenio.**

"Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea" y el Ayuntamiento de Eibar se comprometen a abordar las actuaciones que de mutuo acuerdo determinen para el impulso de los objetivos referidos en la Cláusula Primera.

El coste total de las actuaciones que se aborden en base a este Convenio, estimado en 16.460.886,18 € (impuestos no inc.), será financiado entre "Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea" y el Ayuntamiento de Eibar de la siguiente manera:

a).- La cantidad de 15.727.088 € (impuestos no inc.), será financiada íntegramente por "Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea" con cargo a los fondos MRR (Mecanismo para la Recuperación y la Resiliencia), en el marco "Next Generation EU" del plan extraordinario puesto en marcha por la Unión Europea, por acuerdo del Consejo Europeo de 21 de Julio de 2020, para el impulso de una recuperación económica sostenible, uniforme, inclusiva y justa de los Estados Miembros tras la pandemia del coronavirus.

b).- La cantidad de 733.798,18 € (impuestos no inc.) será financiada al cincuenta por ciento (50%) entre "Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea" y el Ayuntamiento de Eibar.

Se estiman para todo ello las siguientes anualidades:

- 2022.- 6.000.000,00 € íntegramente imputables a "Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea".
- 2023.- 6.950.000,00 € íntegramente imputables a "Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea".
- 2024.- 3.510.886,18 € de los cuales 3.143.987,09 € corresponderían a "Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea" y 366.899,09 € corresponderían al Ayuntamiento de Eibar.

Horren haritik, Euskal Trenbidea Sarearen trenbide lineetako zatiak estaltzeko honako jarduketa hauek identifikatu dira Eibarko udalerrian:

- Eibarko estazioa-Azitain zatia.

Jarduera hau gauzatzeko, lehen adierazitako MRR funtsen eskuragarritasuna eta erabilgarritasuna egiaztatu beharko da. Egiaztapen hori egiterik ez badago, alderdiek finantzaketa-konpromisoak eguneratzeko eta doitzeko konpromisoa hartuko dute, 2010eko urtarrilaren 21eko aurreko hitzarmenaren arabera eta haren garapen-eranskinetan jasotakoaren arabera. Oro har bi aldeek ekarpenen oreka ekonomikoa egongo da, dagokion eranskina Hitzarmen honi lagunduz. Bestela, aipatutako eranskin hori izan ezean, alderdiek hitzarmen honen suntsiarazpena eta azkentzea ere aukeratu ahal izango dituzte.

#### **HIRUGARRENA.- Euskal Trenbide Sarearen konpromisoak.**

Zuzenbide Pribatuko Euskal Trenbide Sarea – Red Ferroviaria Vasca erakunde publikoak honako konpromisoak hartzen ditu:

- a) Bigarren klausulan aipatzen den zatiari dagozkion lanak kontratatzea.
- b) Obren egikaritzea teknikoki zuzentzea, gainbegiratzea eta ikuskatzea, erakundeak berak zuzenean eginez edo obra-zuzendaritzari laguntzeko zerbitzuak kontratatuz.
- c) Aurreko klausulen garapen gisa zehaztu beharko diren ekarpen ekonomikoak egitea.

#### **LAUGARRENA.- Eibarko Udalaren konpromisoak.**

Eibarko Udalak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

En este sentido se ha identificado la siguiente actuación de cobertura de los tramos de las líneas ferroviarias de "Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea" en el término municipal de Eibar:

- Tramo estación de Eibar-Azitain.

La ejecución de esta actuación queda sujeta y condicionada a la verificación del acceso y puesta a disposición de los Fondos MRR antedichos. En caso de que dicha verificación no se materializase, las Partes se comprometen a actualizar y ajustar los compromisos de financiación, en consonancia con los acuerdos plasmados en el anterior Convenio de 21 de enero de 2010 y en sus Addendas de desarrollo, de forma que globalmente se produzca un equilibrio económico de las aportaciones de ambas partes, documentándose la correspondiente Addenda al presente Convenio. Alternativamente, en defecto de la Addenda de desarrollo aludida, las Partes podrán optar igualmente por la resolución y extinción del presente Convenio.

#### **TERCERA.- Compromisos del Ente Público "Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea".**

El Ente público de Derecho Privado "Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea", se compromete a:

- a) Contratar las obras del tramo referido en la Cláusula Segunda.
- b) Dirigir, supervisar e inspeccionar técnicamente la ejecución de las obras, directamente por el Ente, o contratando y financiando los servicios de apoyo a la dirección de obra.
- c) Realizar las aportaciones económicas que se deberán concretar como desarrollo de la Cláusula anterior.

#### **CUARTA.- Compromisos del Ayuntamiento de Eibar.**

El Ayuntamiento de Eibar se compromete a:



- a) Obra-zuzendaritzarekin elkarlanean aritzea eta obrak behar bezala burutzeko beharrezkoa den laguntza aktiboa eskaintzea.
- b) Bigarren klausularen garapen gisa zehaztu beharko diren ekarpen ekonomikoak egitea.

- a) Colaborar con la Dirección de Obra y prestar la asistencia activa necesaria para la buena marcha de las obras.
- b) Realizar las aportaciones económicas que se deberán concretar como desarrollo de la Cláusula Segunda.

#### **BOSTGARRENA.- Obrak jasotzea eta entregatzea.**

Hitzarmen honen xede diren eta trenbide-sistemari atxikita ez dauden obrak jaso ondoren, Eibarko Udalarari entregatuko zaizkio, hura izango baita mantentzearen, garbiketaren eta kontserbazioaren ardura izango duena, bai eta ondasunaren titular gisa dagozkion beste edozein alderdiren arduradun ere.

#### **SEIGARRENA.- Lanen finantzaketari eta ordainketari buruzko konpromisoak.**

1.- Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea Erakunde Publikoak kontratazio espedientea izapidetu aurretik, Eibarko Udalak entitate publikoari igorriko dio bere gain hartzen dituen finantza-konpromisoak betetzeko behar besteko kredituak eta funtsak edukitzearen disponibilitate-egiaztagiria.

2.- Obra-ziurtagiriak, zuzendari teknikoak eman ondoren eta Zuzenbide Pribatuko Red Ferroviaria Vasca - Euskal Trenbide Sarea Erakunde Publikoaren arduradunak onetsi eta gero, Eibarko Udalera igorriko dira, onartu beharreko diru-kopurua adieraziz, eta Udalak zenbateko hori sartu beharko du horretarako ezartzen den kontuan. Akatsik hautemango balitz, Eibarko Udalak Entitate Publikoari jakinarazi beharko dio gehienez ere hamabost egun balioduneko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, epe berean, akats horiek zuzendu ahal izateko.

3.- Gerta daitezkeen eta proiektuaren prezioan eragin ekonomikoa izan dezaketen kontratuaren gorabeherak (kontratu aldaketak, gehiegikeria likidazioetan, prezioen berrikuspena, zerga-tasen aldaketak, eta abar) eta obra-aldaketak, baldin eta haien zenbateko metatuak ez badu gainditzen hasieran kalkulaturako aurrekontua, kontratazio-organoak

#### **QUINTA.- Recepción y entrega de las Obras.**

Recepcionadas las obras objeto de este Convenio que no estén adscritas al sistema ferroviario, se procederá a la entrega de las mismas al Ayuntamiento de Eibar, que será el encargado del mantenimiento, limpieza y conservación, así como de cualquier otro aspecto que le corresponda por su condición de titular del bien.

#### **SEXTA.- Compromisos relativos a la financiación y pago de los trabajos.**

1.- Con anterioridad a la tramitación del expediente de contratación por parte de "Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea", el Ayuntamiento de Eibar remitirá al Ente Público el certificado de disponibilidad y reserva del crédito y/o fondos adecuados y suficientes para la cobertura del compromiso financiero asumido.

2.- Las certificaciones de obra, una vez extendidas por el Director Técnico y aprobadas por el responsable de obra del Ente Público de derecho Privado "Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea" serán remitidas al Ayuntamiento de Eibar, con indicación del importe a aprobar, quedando éste obligado a su ingreso en la cuenta que al efecto se establezca. Si se detectasen errores, el Ayuntamiento de Eibar deberá comunicarlo al Ente Público en el plazo máximo de quince días hábiles, contados a partir del día siguiente al de su recepción, para que, en igual plazo, sean subsanados.

3.- Las incidencias contractuales que, en su caso, se produzcan con repercusión económica sobre el precio del proyecto (tales como modificaciones contractuales, exceso en las liquidaciones, revisiones de precios, modificaciones de tipos impositivos, etc.), así como modificados de obra, cuyo importe acumulado no exceda del presupuesto estimado inicialmente, serán aprobados por el órgano de

onartuko ditu, hitzarmenaren jarraipen-batzordeak alde txostena eman ondoren, eta alderdi bakoitzak finantzatuko ditu, bigarren klausulan adierazitako ehunekoen arabera.

Gorabehera edo aldaketa horien zenbatekoak bigarren klausulan adierazitako aurrekontua gainditzen badu, hau da, 16.460.886,18 € (zergak sartu gabe), Jarraipen Batzordean aztertuko da hitzarmenean aldakuntzak egitea, hitzartutako zenbatekoa handitzeko. Udal administrazioko eta Erakundeko organo eskudunek onartu ondoren, bi alderdiek finantzatuko dute % 50ean.

**ZAZPIGARRENA.- Jarduketan zuzendaritza, koordinazioa eta jarraipena.**

Hitzarmen honen zuzendaritza, koordinazioa eta jarraipena egiteko Batzorde bat eratuko da, lau ordezkari osatuko dutena: "Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea" entitate publikoko bi ordezkari, eta Eibarko Udaleko beste bi, zeinak Hitzarmen honen sinatzaileek aukeratuko dituzten, hurrenez hurren.

Ondoko hauek izango dira eginkizunak:

- a) Hitzarmen honetan aurreikusitako jarduerak behar bezala gauzatzen direla egiaztatzea, irizpideak eta moduak ezarriz elkarri informazioa ematea eta hartutako konpromisoak behar bezala betetzea ahalbidetzeko, eta alde bakoitzari dagozkion izapideak arintzen saiatuz.
- b) Ager daitezkeen interpretazio- eta betetze-arazoak ebaztea, irizpideak eta moduak ezarriz elkarri informazioa ematea eta hartutako konpromisoak behar bezala betetzea ahalbidetzeko.
- c) Kasu bakoitzean eskatzen diren izapideak azkar egitea eragozten duten oztopoak kentzen laguntzea.

contratación, previo informe favorable de la comisión de seguimiento del convenio y serán financiados por cada una de las partes conforme a los porcentajes de financiación indicados en la cláusula segunda.

Cuando el importe de dichas incidencias o modificaciones llegue a superar el presupuesto señalado en la cláusula segunda, es decir, la cantidad de 16.460.886,18 € (Impuestos no inc.) se tratará en la Comisión de Seguimiento la modificación de este convenio para incrementar la cifra estipulada. Una vez aprobado por los órganos competentes de la administración municipal y del Ente, será cofinanciado por ambas partes al 50%.

**SEPTIMA.- Dirección, coordinación y seguimiento de las actuaciones.**

Se constituirá una Comisión para la dirección, coordinación y seguimiento del presente Convenio que estará formada por un total de cuatro representantes, dos representantes del Ente Público "Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea" y dos representantes del Ayuntamiento de Eibar, que serán designados, respectivamente, por las partes firmantes del presente Convenio.

Sus funciones serán las siguientes:

- a) Llevar a cabo el seguimiento de la normal ejecución de las actuaciones previstas en el presente Convenio, determinando los criterios y modos para posibilitar la mutua información y adecuado cumplimiento de los compromisos respectivos, tratando de agilizar el cumplimiento de los trámites que correspondan a cada una de las partes.
- b) Resolución de problemas de interpretación y cumplimiento que puedan plantearse determinando los criterios y modos para posibilitar la mutua información y adecuado cumplimiento de los compromisos respectivos.
- c) Facilitar la remoción de los obstáculos que entorpezcan la celeridad de los trámites requeridos en cada caso.



Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea Erakunde Publikoak, obrek irauten duten bitartean gertatutako gorabehera esanguratsuenen berri emango dio Batzordeari, honako dokumentazio hau aurkeztuz:

- Prestatuko den jarduketa-plana edo kronograma.
- Batzordeko edozein kidek komenigarri jotzen duen edo eska dezakeen edozein dokumenturen kopia.

Batzorde honek bilerak burutuko ditu lau hilabetez behin edo aldeetako batek hala eskatzen duenean, hitzarmenak indarrean irauten duen bitartean.

#### **ZORTZIGARRENA.- Hitzarmenaren araubidea eta interpretazioa.**

1.- Hitzarmen honen izaera administrazio artekoa da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.2.a) artikuluan jasotzen direnetakoa; hitzarmena interpretatzeko eta garatzeko, era horretako tresnei aplikatzen zaien ordenamendu juridiko eta administratiboari jarraituko zaio.

2.-Hitzarmen honek edo haren exekuzioak planteatzen dituzkeen arazoak ebazpena Batzorde Teknikoari dagokio, aurreko klausulan aipatutakoaren arabera; hori posible ez balitz, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren ardura izango da, kasuan-kasuko lege organikoaren, kompetentzialaren eta prozesalaren arabera.

#### **BEDERATZIGARRENA.- Hitzarmenaren ondorioak eta iraupena.**

Hitzarmenak ez du ekarriko parte hartzen duten alderdien eskumenei uko egin behar izatea edo eskumenak aldatu behar izatea; izan ere, hitzarmenaren arabera hartzen dituzten konpromisoei lotutako erantzukizunak bakarrik hartzen baitituzte beren gain.

Hitzarmenak sinatzen den unetik izango ditu ondorioak eta behartuko ditu parte hartzen duten alderdiak, eta hitzarmena betetzeko hartutako konpromiso guztiak bete arte iraungo du. Nolanahi ere, hitzarmenak ezin izango du Sektore Publikoaren Araubide

El Ente Público "Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea" dará cuenta a la Comisión de los acontecimientos más significativos que se produzcan durante la ejecución de las obras, aportando la siguiente documentación:

- El Plan de actuaciones o cronograma que se preparará.
- Copia de toda la documentación que considere oportuna o que sea recabada por cualquiera de los miembros de la comisión.

Esta Comisión se reunirá con carácter ordinario cada cuatro meses o a propuesta de cualquiera de las partes, durante la vigencia del Convenio.

#### **OCTAVA.- Régimen e interpretación del Convenio.**

1.- El presente Convenio es de tipo interadministrativo, de los contemplados en el art. 47.2.a) de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico administrativo aplicable a estos instrumentos.

2.- La resolución de los problemas de interpretación que pueda plantear el presente Convenio o su ejecución corresponderá a la Comisión Técnica, según lo referido en la Cláusula anterior; si no fuera posible, corresponderá su conocimiento al Orden Jurisdiccional Contencioso-Administrativo, de conformidad con la ley orgánica, competencial y rituarial correspondientes.

#### **NOVENA.- Efectos y duración del Convenio.**

El Convenio no supondrá renuncia ni alteración de las competencias de las partes intervinientes, que asumen únicamente responsabilidades inherentes a los compromisos que contraen en virtud del mismo.

El Convenio surtirá efectos y obligará a las partes intervinientes desde su firma y durará hasta el cumplimiento de todos los compromisos asumidos para su ejecución, sin que en ningún caso pueda exceder los cuatro años de vigencia del ordinal 1º del art. 49.h) de la Ley 40/2015,

Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49.h) artikularen 1. ordinalaren lau urteko indarraldia gainditu.

Azaldutakoa alde batera utzi gabe, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49.h) artikularen 2. ordinalarekin bat etorritik, hitzarmenaren gehieneko epea amaitu baino lehen, alderdiek aho batez adostu ahal izango dute hura luzatzea gehienez ere beste lau urterako.

### **HAMARGARRENA.- azkentzea.**

### **Hitzarmena**

1.- Hitzarmen hau azkendu egingo da bere xede diren jarduerak betetzeagatik edo suntsiarazteko arrazoiren batengatik.

2.- Honako hauek dira suntsiarazteko arrazoiak:

- a) Hitzarmenaren indarraldia amaitzea hitzarmenaren luzapena adostu gabe.
- b) MRR funtsak bigarren klausulan adierazitako moduan eskuragarri ez daudela berrestea.
- c) Sinatzaile guztiek aho batez hala erabakitzea.
- d) Sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea.

Kasu honetan, alderdi bietako edozeinek besteari errekerimendu bat jakinarazi ahalako dio bete gabekotzat jotzen diren obligazioak epe jakin batean bete ditzan. Errekerimendu hori Zazpigarren Klausulan aipatutako Batzordeari ere jakinaraziko zaio, batzorde hori baita Hitzarmena betetzen dela jarraitzeko, zaintzeko eta kontrolatzeko ardura duena

Errekerimenduan adierazitako epea igarota ez-betetzeak bere horretan jarraitzen badu, errekerimendua egin zuen alderdiak besteari jakinaraziko dio suntsiarazteko arrazoa dagoela eta Hitzarmena suntsiarazita dagoela ulertuko da. Hitzarmena arrazoi horrengatik suntsiarazteak berekin

de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Sin perjuicio de lo expuesto y al amparo de lo preceptuado expresamente en el ordinal 2º del art. 49.h) de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, en cualquier momento antes de la finalización del plazo máximo, los firmantes del convenio podrán acordar unánimemente su prórroga por un periodo de hasta cuatro años adicionales.

### **DECIMA.- Extinción del Convenio.**

1.- El presente Convenio se extinguirá **se** por el cumplimiento de las actuaciones que constituyen su objeto o por incurrir en causa de resolución.

2.- Son causa de resolución:

- a) El transcurso del plazo de vigencia del Convenio sin haberse acordado la prórroga del mismo.
- b) La confirmación de la falta de acceso y puesta a disposición de los Fondos MRR, en los términos establecidos en la Cláusula Segunda.
- c) El acuerdo unánime de todos los firmantes.
- d) El incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por parte de alguno de los firmantes.

En este caso, cualquiera de las partes podrá notificar a la otra incumplidora un requerimiento para que cumpla en un determinado plazo con las obligaciones o compromisos que se consideran incumplidos. Este requerimiento será igualmente comunicado a la Comisión referida en la Cláusula Séptima, en su condición de responsable del seguimiento, vigilancia y control de la ejecución del Convenio.

Si transcurrido el plazo indicado en el requerimiento persistiera el incumplimiento, la parte que lo dirigió notificará a la otra parte firmante la concurrencia de la causa de resolución y se entenderá resuelto el Convenio. La resolución del Convenio por esta causa podrá conllevar la indemnización de los

ekar dezake ez-betetzeak eragindako kalteengatik ordaina jaso ahal izango da.

perjuicios causados por el incumplimiento.

e) Hitzarmena deuseza dela deklaritzen duen erabaki judiziala.

e) Por decisión judicial declaratoria de la nulidad del Convenio.

3.- Hitzarmena suntsiarazten bada, alderdiek zehaztuko dute zer baldintza bete behar diren egiten ari diren lanak amaitzeko eta ordaintzeko, eta zer obra egin behar diren jada egindakoak hondatu ez daitezen eta erabilera publikorako entregatu ahal izan daitezen.

3.- En caso de resolución, las partes determinarán las condiciones para la finalización y pago de los trabajos que se hallen en ejecución y de las obras estrictamente indispensables para que las ya ejecutadas no se deterioren y puedan ser entregadas al uso público.

Eta ados daudela adierazteko, bertaratuek dokumentu hau sinatzen dute, lau aletan, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

Y, en prueba de conformidad, firman los comparecientes el presente documento, por cuadruplicado, en el lugar y fecha señalados en el encabezamiento.

EL PRESIDENTE DEL ENTE PUBLICO "RED FERROVIARIA VASCA-EUSKAL TRENBIDEA SAREA" / "RED FERROVIARIA VASCA - EUSKAL TRENBIDE SAREA" ERAKUNDE PUBLIKOKO LEHENDAKARIA

EL ALCALDE DEL AYUNTAMIENTO DE EIBAR / EIBARKO UDALEKO ALKATEA

D. IÑAKI ARRIOLA LOPEZ JN.

D. JON IRAOLA IRIONDO JN

EL SECRETARIO DEL AYUNTAMIENTO DE EIBAR / EIBARKO UDALEKO IDAZKARIA

D. JUAN AGUSTÍN VILLAFRANCA BELLIDO